



Japonian badute ARGIAren berri



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sho HAGIO izena du ARGIAko harpidedun japoniarrak. Fukuoka probintzian bizi da, Tokiotik 1.000 kilometrora, eta han jasotzen du aldizkaria. Orain aste gutxi Karel Sterckx flamenkoari egin genion galdera bera bota diot emailaz japoniarrari ere: nola eta noiz ikasi duzu euskaraz, eta nolatan zara ARGIAko harpidedun?

Euskal Herrian izana da Sho, lehen aldiz 1984an, unibertsitateko ikasle zela. Egonaldian zehar gazte euskaldun batzuekin egin zuen harremana, eta haien bitartez ezagutu zuen ARGIA. Bere herria itzulitakoan euskal munduarekiko harremana mantendu nahirik galdegin zien zer izan zitekeen modurik egokiena, eta gazteek proposatu zioten asteak; orduantxe Zeruko Argia izatetik ARGIA izatera pasa zena. Garai hartarako, noski, ez zitzaion arrotza egiten gure hizkuntza. Hasiera batean "kuriositate intelektualagatik" dio berak, ekin zion euskara ikasteari; eta Euskal Herrian izan ondoren ARGIAren bitartez jarraitu ditu bertako berriak eta mantendu

du hizkuntza. Lehen harpidetza 1993an egin zuen, eta ordutik beti harpidedun izan ez bada ere, gaur egun jarraitzen du astekaria jasotzen. Gaineratu digu gustura jaso dituela ARGIA proiektuak azken urtean egindako aldaketak.

Hizkuntzaz baino nahiago du, ordea, kulturaz hitz egin. Edo zuzenago esanda, hizkuntzaz hitz egiterakoan kulturaz hitz egiten du, azken honen barruan sartuz. Antzekotasun handiak ikusten ditu euskal eta japoniar kulturen artean, eta horrek bultzatzen du gehiago ezagutu eta ikastera. Dio, askotan kulturak bizirik mantentzeko sistema izaten dela beste kulturetatik gauza berriak jasotzea, baina aldi berean ez zaigula ezezaguna gusztatzen; hortaz ahalegintzen garelako kulturen arteko antzekotasunak bilatzen erosoago sentitzeko. Hala egin du Shok gure kulturarekin, eta azpimarratzen dizkigu hizkuntzaren egitura, ohitura zaharren garrantzia, etxearen izenen erabilera edo auzolanaren garrantzia. Balore eta ezaugarri horiek ere inportanteak baitira Japonian. ■

Sarean arrantzatuak



Basurde

@DeniBasurde



Jarrailu

La revista en euskera @argia cuela a su periodista @axierL en el núcleo de Podemos andina.com.pe/agencia/notici...

España: periodista es multado por difundir en Twitter foto de una acción policial

Publicación no habría estado autorizada



Hauteskundeetarako hautagaitzen porrusaldan, txio honek salatu gaitu: "ARGIA euskarazko aldizkariak bere kazetari @axierL sartu du Podemosen muinean".



Sara Arruabarrena

@sara



Jarrailu

Askok pentsatzen deuna plazaratu du Oihana Etxebarriak Argian, "Emakumeak bakarrik?" artikulun: argia.eus/argia-astekari ... @argia bidez

02:38 - 2016 uzt. 10

Abuztuan har dezagun arnas: Lau aste, aurreko astekariak irakurtzeko

Atsedean hartuko du astekariak abuztuan. Irakurleok ere lau asteko astia badugu, aurretik "hau irakurri behar dut" izan baina beti gerokotan geratu zaizkigun artikulua meta txikitzeko. Irailaren 4ko data eramango du jasoko duzun hurrengo astekariak. Tarte horretan argia.eus webgunetik jarraitu ahal izango dituzu eguneko albisteak. Indarrak hartu ditzagula hurrengo aldirako!

Hurrengo ikasturtean ARGIAko trukea elikatu nahi baduzu...

Zenbat lan egiten den Euskal Herriko elkarte eta eragileetan! Hauen emaitza plazaratzeko leku bat ere bada ARGIA. Harpidedunen artean zozketatzen ditugu eragile hauek ateratako materialak, eta baita ekitaldietarako sarrerak ere. Zuen eragilearen lanak ezagutzera eman nahi badituzu, udazkenetik aurrera izango duzu berriro aukera. Jarri gurekin harremanetan harpide@argia.eus helbidera idatzita.